

Ohiko min
eta larrialdiak:
OSASUN-ZENTROA

www.serviciosanitarios.es



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE SANIDAD, POLÍTICA SOCIAL
E IGUALDAD

Kasu larriagoak:
OSPITALEAK

ERANTZUKIZUNA HARTUZ,
OSASUNA IRABAZIKO DUGU



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE SANIDAD, POLÍTICA SOCIAL
E IGUALDAD

**BALIABIDE PUBLIKOAK HERRITAR
GUZTIONAK DIRA. OSASUNA ERE:
ZAINDU EGIN BEHAR DUGU ETA BEHAR
BEZALA ERABILI, BEHAR DUGUNEAN
ETEKINA ATERA DIEZAI OGUN.**

■ **Lehen Mailako Arretaren** barruan osasun-laguntza osasun-zentro bateko kontsultan edo landa-eremuko kontsultan eta, beharrezkoa balitz, baita gaixoaren etxean bertan ematen da eskariari erantzunez, aurrez programatuta edo larrialdi bat artatzeko.

Zerbitzu horietan gaitasun teknikoa bermaturik dago normalean izaten diren gaixotasun arazoak oso-osorik tratatzeko.

■ **Arreta Espezializatua** gaixoaren ezaugarrien eta bere prozesuaren arabera da eta kanpo-kontsultetan, eguneko ospitalean eta ospitaleratze erregimenean ematen da.

Arreta hau lagungarri da lehen mailako asistentziari dagozkion altan nahiz etxeko ospitalizazioan eta baita gaixo terminalei bideratutako zainketa aringarrietan ere.

■ **Larrialdiko Arreta** gaixoa berehala artatu behar denean ematen da.

Osasun-zentroetan nahiz haietatik kanpo (gaixoaren etxean, edozein egoeran sor daitekeen larrialdia, etab.) ematen da, eguneko 24 ordutan.

Larrialdiko arreta, lehen mailako asistentziaren, ospitaleen eta hartara bideratutako zerbitzu berezien bidez ematen da.

Gogoan izan Lehen Mailako Arretako osasun-zentroetan ohiko arazoekin lotutako larrialdiko arreta eskaintzen dela eta ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetan berehalako esku-hartzea eskatzen duten kasu larriagoak artatzen direla.

**Eskatu egoera bakoitzari dagokion
jardunbideari buruzko informazioa
zure osasun-zentroan.**

ERANTZUKIZUNA HARTUZ, OSASUNA IRABAZIKO DUGU